

2007-11-06ko OHIZKO UDALBATZA

Iruran, bi mila eta zazpigarren urteko azaroaren seian, arratsaldeko 20:30etan, udaletxeko udalbatza-aretoan, ohizko batzarra egin du Udalbatzak, alkatea – Marimi Ugalde Zabala andrea– buru duela.

Zinegotzi hauek izan dira bileran:; M. Jesus Otaño Zumeta andrea, Eugenio Loidi Garmendia jauna eta Agustin Zubeldia Iraola jauna.

Ez dira etorri eta ezin etorria adierazi du: Jose Luis Olano Zubeldia jauna, Gregorio Lasa Etxezarreta jaunak.

Ez dira etorri eta ez du adierazi ezin etorria: Aitor Lasa Olalde jaunak.

Udaleko idazkariak, Bittor Agirreurreta Murgia jaunak, egin ditu idazkari-lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arazten dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutako gutxieneko partaide-kopurua bertaratua baita.

LEHENBIZIKO GAIA

AURREKO UDAL BATZORDEKO AKTAK ONARTZEA (07/09/11).

2007ko irailaren 11ko ezohiko saioaren aktaren zirriborroa ikusita, aho batez erabaki zuen Udalbatzak hau onartzea.

BIGARREN GAIA

ALKATETZAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA.

Alkateak honako dekretuen berri ematen dio udalbatzari:

-2007-09-12ko 93/07 Dekretua: Emilio Arrizabalaga Ruiz de Azuari (Irura Eraikuntzak, S.L.-ren izenean) baimena ematea Manufacturas Izaskun, S.L. eraikina eraisteko lanak aurrera eramateko.

-2007-09-13ko 94/07 Dekretua: Abuztuari dagozkion fakturak onartzea, 28.974,24€ko zenbatekoa osatzen dutelarik.

-2007-09-13ko 95/07 Dekretua: Alkatea lehenengo alkateordearengan eskukordetzea Iker Ugalde Gorostiaga peoiaren lan kontratuaren aldaketarako.

-2007-09-13ko 96/07 Dekretua: Herriko jaiak direla eta, Iker Ugalde Gorostiaga, Lhou Ouahzizi eta M^a Jose Aizpuru Larrarteren lan kontratuen ezaugarriak aldatzea.

-2007-10-04ko 97/07 Dekretua: Naturgas Energiak egiten duen Udal jabari publikoaren erabilpen pribatibo eta aprobetxamendu bereziagatiko likidazioa.

-2007-10-04ko 98/07 Dekretua: Naturgas Energiak egiten duen Udal jabari publikoaren erabilpen pribatibo eta aprobetxamendu bereziagatiko likidazioa.

-2007-10-05eko 99/07 Dekretua: Miguel Amenabar Olozagak (Irurako Ikastolaren izenean) eskatutako "0" kotatik gorako eraikuntza baimena ematea zenbait baldintzapean.

- 2007-10-10eko 100/07 Dekretua: Endesa enpresak egiten duen Udal jabari publikoaren erabilpen pribatibo eta aprobetxamendu bereziagatiko likidazioa.
- 2007-10-10eko 101/07 Dekretua: Endesa enpresak egiten duen Udal jabari publikoaren erabilpen pribatibo eta aprobetxamendu bereziagatiko likidazioa.
- 2007-10-10eko 102/07 Dekretua: Iozu Lizarraga Gabirondok egindako obra baimen eskaera onartzea zenbait baldintza ezarriz.
- 2007-10-11ko 103/07 Dekretua: Herriko jaiei dagozkien fakturak onartzea, 59.276,09€ko zenbatekoa osatzen dutelarik.
- 2007-10-11ko 104/07 Dekretua: Naturgas enpresak egiten duen Udal jabari publikoaren erabilpen pribatibo eta aprobetxamendu bereziagatiko likidazioa
- 2007-10-11ko 105/07 Dekretua: Eskolako 21 Agenda garatzeko laguntza tekniko egiteko kontratua GALEMYS S.L. eta INGURUGIRO ZERBITZUAK S.COOP.-i esleitzea.
- 2007-10-16ko 106/07 Dekretua: Asuncion Ipinza San Sebastiani oker egindako lurren balio gehikuntzaren gaineko zergaren likidazioa zuzentzea.
- 2007-10-17ko 107/07 Dekretua: TRINELEC, S.L.-ek egindako iharduera lizentzia eskaeraren espedientea Euskal Autonomi Elkartearen Ingurune organoari bidaltzea.
- 2007-10-17ko 108/07 Dekretua: ORKLI, S.COOP.-ek egindako iharduera lizentzia eskaeraren espedientea Euskal Autonomi Elkartearen Ingurune organoari bidaltzea.
- 2007-10-17ko 109/07 Dekretua: Fischer Ralph baimena ematea France zirkoa jartzeko, aldi berean zenbait baldintza ezarriz.

Hori dela eta, udalbatzak aho batez adierazi du jakinaren gainean dagoela.

HIRUGARREN GAIA
ONARTZEA, BADAGOKIO, ARAU SUBSIDIARIOETAKO 5. AKTUAZIO
UNITATEKO BORONDATEZKO BIRPARTZELAZIOA (GASPAR-ENEA ETA
ALDAPAGAIN GUNEA) ETA BERAU SINATZEKO ALKATEA
AHALORDETZEA.

Irurako arau subsidiarioetako 5. aktuazio unitateko borondatezko birpartzelazioa egiteko asmoz, dokumentu sorta ekarri du Jokin Iraola Elosegik, Kikilau S.L.-ren izenean, Jose M^a eta Karmen Alkorta Azkue arkitektoek idatzitako proiektu teknikoaren arabera eta Hector M. Nagore Soravilla abokatuak aholkatua.

Ekainaren 30eko, 2/2006 Legeak, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoak 48. artikuluan arautzen du borondatezko birpartzelazioa onartzeko izapidea. Honen arabera, birpartzelazioak afektatzen dituen jabeek proposatua izan behar du, eskritura publikoan formalizatua eta 20 egunez jende aurrean erakutsia izan behar du. Behin betiko onarpena heldu ondoren ez du beste inongo egintza edo erabakiren beharrik, Jabetzaren Erregistroan inskribatzerakoan nahikoa izango da aipatutako eskritura aurkeztea, dagokion onarpenaren ziurtagiria atxikia duelarik.

Aurkeztutako birpartzelazioaren behin behineko proposamenean, jabe bakar batek gestionatuko duen unitate bat dago. Hirigintza Gestio Erregelamenduko 157 eta 173 artikuluetan dionez, birpartzelazioak lagatu beharreko sailak eta planak ezartzen dituen erreserbak kokatu behar ditu, bai eta administrazioari dagokion diru bidezko aprobetxamendua suposatzen duten lur sail eraikigarriak.

Lehenengo baldintza betetzen dela esan daiteke, lagatu beharreko lur sailei dagokienean salbu.

Bestalde, esandako Ekainaren 30eko, 2/2006 Legearen arabera, Herri-erakundeen hirigintzako ekintzan sortutako gainbalioetan erkidegoak parte har dezan, hiri-lurzoru finkatugabearen eta lurzoru urbanizagarriaren jabeek doan laga beharko diote udalari batez besteko hirigintza-eraikigarritasunaren % 10ari dagokion lurzoru, urbanizazio-kostuetatik libre. Lurzoru hori esleitzeko aukerarik ez dagoenean, posible da kopuru hori dirutan ematea eta kasu honetan honela egiten da.

Kontuan izan beharko da zenbait datu ez direla zuzenak aurkeztutako planoetan eta birpartzelazioarekin aurrera jarraitzeko, hauek zuzendu beharra dagoela:

- 3. zenbakia duen planoan, P-III lur sailaren jabea Irurako udalaren oredez Irunekoa dela azaltzen da.
- Idatziz azaltzen diren finken izendapena ez dator bat 3. planoak adierazten duenarekin.
- 3. zenbakia duen lur saila ez da osoki diputazioaren jabegokoa, nahiz eta guztiak izaera publikoa izan, udalaren jabegoa ere badago bertan (espaloiak).
- Ez dager ondorioz sortzen den lur sailen egoeraren planurik. Honetaz gain, idatzitako deskribapena eta planoak adierazten duena ez datoz bat "Vial N°1" eta "Vial N°2" azaltzean.
- Komenigarria da egitasmo honetan jasotzea, erabilera publikoko zortasuna duen partzela pribatua, 2.500 Kg/m² -ko gainkarga jasateko ahalmena izan beharko duela.
- Era berean, jaso egin beharko da aipatutako partzela pribatu horren mantentze eta konpontze lanek suposatuko duten kostuaren banaketa zein erataraz egingo den batetik, eta zein elementuri eragingo dien bestetik.

Edozein modutan, guztia zuzendutakoan, aipatutako eskriturei zenbait dokumentu erantsi beharko zaie: Memoria, exekuzio unitatearen kokapen-planoa, mugapen-planoa, informazio katastrala, ordenazio-planoa eta gainjarritako planoak.

Idazkariaren eta Udal hau aholkatzen duen arkitektuaren txostenak ikusirik, udalbatzak, bertan daudenek aho batez hartutako erabakiaren bidez, ondokoa erabakitzen dute:

Lehena.- Birpartzelazioa onartzea, Udala aholkatzen duen arkitektuak

bere txostenean adierazitako akatsak zuzendutakoan eta berak behin betiko txostenean oniritzia eman ondoren.

Bigarrena.- Alkatea ahalordetzea aipaturiko birpartzelazioa aurrera eramateko sinatu behar diren dokumentu eta izapide oro aurrera eramateko.

Hirugarrena.- Iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 20 egunetako epean Udal honetako idazkaritzan erakusgai izatea.

Erabaki hau erabatekoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

LAUGARREN GAIA

AMETSA PILOTA ELKARTEAK EGINDAKO DIRULAGUNTZA ESKAERA.

Ametsa pilota elkarteak dirulaguntza eskaera egin dio Udal honi. Eskaerarekin batera, 05/06 eta 06/07 ikasturteetan izandako kostuak zerrendatzen dituzte:

Ikasturtea	Ekintza	Kostua
05/06	Pilota eskola mutilak sharez	1.549,20.- €
	Pilota eskola neskek palaz	564,00.- €
	05/06 Guztia	2.113,20.- €
06/07	Pilota eskola	3.855,00.- €
	06/07 Guztia	3.855,00.- €
	Denetara eskatutakoa	5.968,20.- €

Honen aurrean, udalbatzak, bertan daudenek aho batez hartutako erabakiaren bidez, aipatutako dirulaguntza eskaera onartzen du eta dagokionean ordaintzea. Horretarako, azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorrak ezarritakoaren arabera, honako baldintza hauek bete beharko ditu:

- Nortasunaren egiaztagiria
- Legearen 13. artikuluan adierazten diren egoeretan ez dagoela zinez aitortzea.
- Foru Ogasun eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatuko du(t)en ziurtagiria(k).
- Aurkeztea, behar denean, baimendutako ordezkariak eginiko idatzia, ordaintzeko modua zehaztuz.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka Administrazioarekiko auzi-helegitea ipini daiteke Donostiako Administrazioarekiko auzietako epaitegietan.

BOSGARREN GAIA

ONARTZEA, BADAGOKIO, BERGARAKO ARANZADI IKASTOLAK

**EGINDAKO DIRULAGUNTZA ESKAERA, 2007KO "KILOMETROAK" JAIARI
LAGUNTZEKO.**

Ikusita urriaren 7an Bergaran egin zen Kilometroak 2007 ekitaldiaren diru-laguntza eskaera, Udalbatzak erabaki du aho batez 175.- €-ko diru-laguntza ematea eta ordaintzeari ekitea.

Erabaki hau erabatekoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

**SEIGARREN GAIA
ONARTZEA, BADAGOKIO, HERRI URRATSEK EGINDAKO DIRULAGUNTZA
ESKAERA, 2007KO SEASKAKO IKASTOLEN FESTA NAGUSIA
ANTOLATZEKO.**

Ikusita maiatzaren 13an Senperen egin zen Herri Urrats ekitaldiaren diru-laguntza eskaera, Udalbatzak erabaki du aho batez 255.- €-ko diru-laguntza ematea eta ordaintzeari ekitea.

Erabaki hau erabatekoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

**ZAZPIGARREN GAIA
ONARTZEA, BADAGOKIO, BALMASEDAKO ZUBI ZAHARRA IKASTOLAK
EGINDAKO DIRULAGUNTZA ESKAERA, 2007KO "IBILALDIA" JAIARI
LAGUNTZEKO.**

Ikusita maiatzaren 20an Balmasedan egin zen Ibilaldia 2007 ekitaldiaren diru-laguntza eskaera, Udalbatzak erabaki du aho batez 175.- €-ko diru-laguntza ematea eta ordaintzeari ekitea.

Erabaki hau erabatekoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

**ZORTZIGARREN GAIA
ONARTZEA, BADAGOKIO, ARGANTZONEKO ARGANTZON IKASTOLAK
EGINDAKO DIRULAGUNTZA ESKAERA, 2007KO "ARABA EUSKARAZ"
JAIARI LAGUNTZEKO.**

Ikusita ekainaren 17an Argantzonen egin zen Araba Euskaraz 2007 ekitaldiaren diru-laguntza eskaera, Udalbatzak erabaki du aho batez 175.- €-ko diru-laguntza ematea eta ordaintzeari ekitea.

Erabaki hau erabatekoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren

aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

BEDERATZIGARREN GAIA
ONARTZEA, BADAGOKIO, VIANAKO ERENTZUN IKASTOLAK EGINDAKO
DIRULAGUNTZA ESKAERA, 2007KO "NAFARROA OINEZ" JAIARI
LAGUNTZEKO.

Ikusita urriaren 21ean Vianan egin zen Nafarroa Oinez 2007 ekitaldiaren dirulaguntza eskaera, Udaltzarak erabaki du aho batez 175.- €-ko dirulaguntza ematea eta ordaintzeari ekitea.

Erabaki hau erabatekoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

HAMARGARREN GAIA
ONARTZEA, BADAGOKIO, TOLOSALDEA GARATZENI EGIN BEHARREKO
EKARPENA ETA UDALTALDE 21EKO TEKNIKARIAREN KONTRATAZIO
KOSTUAREN ORDAINKETA EGITEA.

Tolosalde Garatzenek, udal hau partaide izanik, batetik, 2007 urteko jardueran egin beharreko ekarpenaren likidazioa aurkeztu du, 3.131,00.- €koa. Eta bestetik, Ernioaldea Udaltalde 21-eko teknikariaren kontratazio kostuaren faktura aurkeztu du, guztira 3.936,23.- €koa. Udaltzarak aho batez erabaki du bai proposamena, baita faktura ere onartzea eta ordainketak egitea.

Erabaki hau erabatekoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

HAMAİKAGARREN GAIA
BERRESTEA, BADAGOKIO, IRURAKO IKASTOLARI BAIMENA EMATEA,
IKASTOLA BERRIAREN LANAK FINANTZATZEKO ESKATU BEHAR DUTEN
MAILEGU HIPOTEKARIOAREN BERME GISA, UDALAK LAGATAKO
LURSAILAREN GAINEN AZALERA ESKUBIDEA JARTZEKO.

Udaltzarak aho batez erabaki du, alkatetzak emandako 2007ko urriaren 25eko 111/07 dekretua berrestea:

Marisa Alvarezek, Irurako Ikastola Kooperatiba Elkartearen izenean, ikastolaren eraikin berriaren eraikitze lanak direla eta, eskatuko duten maileguaren berme gisa, lursailaren gaineko lurrazal eskubidea hipotekatzeko baimena eskaera egin du, 2007ko urriaren 25ean eta 1711 sarrera zenbakiarekin.

Irurako udaleko ohiko osoko bilkurak 2006ko uztailaren 27an, besteen artean, aho batez onartu zuen ikastetxe bat eraikitze helburuarekin Irurako

udalaren lursail baten gaineko lurrazal eskubidea emateko lehiaketa arautzen duten baldintza pleguak, honi dagokion iragarkia, 2006ko irailaren 11an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zela ikusirik.

Irurako udaleko ohiko osoko bilkurak 2007ko martxoaren 6an, besteen artean, aho batez onartu zuen aipatutako lehiaketaren kontratazio mahaiak eginiko proposamena eta lizitazioa Irurako Ikastola Kooperatiba Elkarteari esleitzea erabaki zuela ikusirik.

Idazkariaren txostena kontuan izanik.

Horren aurrean eta Alkatetza honi, indarrean dagoen legeriak emandako eskumenen arabera, hauen artean azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaz onartutako Entitate Lokaletako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoko Arautegiak adierazten dizkion eskuduntzen arabera,

ERABAKI DUT:

Lehena.- Irurako Ikastola Kooperatiba Elkarateak, ikastolaren eraikin berriaren eraikitze lanak direla eta, eskatuko duten maileguaren berme gisa, Irurako arau subsidiarioetako S-1 sektoreko 2-B1 lursailaren gaineko lurrazal eskubidea hipotekatzeko baimena ematea.

Bigarrena.- Hurrengo Osoko Bilkuran erabaki honen berri eman eta guztiak jakinaren gain jartzea.

Hirugarrena.- Interesatuak jakinaraztea eta dagozkion ziurtagiriak notaritzara igortzea, osatuko diren eskritura publikoekin batera jasoak izan daitezten.

Laugarrena.- Erabaki hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzietarako errekurtsua jarri daiteke Donostiako Epaitegietan.

Hori dela eta, udalbatzak berroneste erabaki du aho batez.

Erabaki hau erabatekoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsua jarri daiteke Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

HAMABIGARREN GAIA
ONARTZEA, BADAGOKIO, UDAL HONEN 2007KO AURREKONTUAREN

LEHENENGO KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEA.

2007 urteari dagokion ekitaldiaren ¾-ak igaro direnengan, beharrezkoa ikusten da urtealdi honi dagokion Lehenengo Kreditu Aldaketa Espedientea aurrera eramatea, aurrekontua eta egindako gastuak parekatzeko asmoz. Kapitulua ezberdinek jasan duten gehikuntza ondokoak dira:

KAPITULUA	Aurrikusitakoa	Aurrikusten dena	Ezberdintasuna
1.- Pertsonal gastuak	557.614.- €	597.614.- €	40.000.- €
2.- Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan.	562.680.- €	602.680.- €	30.000.- €
4.- Transferentzia arruntak	185.600.- €	198.600.- €	7.560.- €
Guztira			77.560.- €

Gastu hauen gehikuntzaren arrazoiak ezberdinak diren arren, hitz gutxitan laburbiltzeko, kapituluaren ikuspegia kontuan hartzea izango da aproposena:

- Lehenengo kapituluak jasandako akatsa, nagusiki bi arrazoiri zor dela esan daiteke: batetik, idazkari-kontuhartzailearen ordezkapena 6 hilabetetarako izango zelakoan, epe hori izan zen kontuan aurrekontuak egiterakoan. Epe hori bikoiztu egin denez, dagokion gastuak ere beste horrenbeste egin du. Bestetik, udal honetako bi teknikariren amatasunak eta honi egotzi dakizkioken ezustekoen ondorioz (gaixotasun baja) eragindako kontratazio beharra.
- Bigarrenengoak jasandakoa: Hainbat gastu ezohikoren azalpenak eragindakoa (epaiketak, ur-biltegiko punpa, jaien gastuen handitzea,...).
- Laugarren kapituluko gora beherak: batez ere udaltalde 21eko teknikariaren kontratazioak suposatu duen gastuak eragindakoa.

Gastuen atalak jasandako gorakada hori, finantzatzeko asmoz, gastu jakin batzuen murriztapena egitea proposatzen da:

KAPITULUA	Aurrikusitakoa	Aurrikusten dena	Ezberdintasuna
6.- Inbertsio errealak	291.087, 02.- €	228.087,02.- €	52.560.- €
622.450 Frontoia: konponketa lanak	(36.000.- €)		
642.430 Arau subsidiarioen berrikuspena	(16.560.- €)		
7.- Kapital transferentziak	94.500.- €	69.500.- €	25.000.- €
781-450 Kapital transf. kultur erakundeei	(25.000.- €)		
(Ikastola berriaren obra)			
Guztira			77.560.- €

Ikusita idazkari – kontuhartzailearen txostena, Udaltzak aho batez erabaki du Lehena.- Udal honen 2007ko aurrekontuaren lehenengo kreditu aldaketa espedienteari behin behineko onarpenera ematea gastuen murriztapen modalitatean.

Bigarrena.- Indarrean dagoen legediak xedatutakoa betez, aipatu espedientea

jendaurrean erakusgai jarri eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean publikatzea, espedientea aztertzeke eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko.

Erabaki hau erabatekoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsua jar daiteke Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

HAMAIRUGARREN GAIA
ONARTZEA, BADAGOKIO, UDAL HONETAKO LANGILEEK EGINDAKO
ESKAERA, SOLDATA MASAREN %1EKO LANSARIA JASOTZEKO.

2007ko urriaren 16ko datarekin, Lierni Irastorza Garmendiak, M^a Jesus Olano Zubeldiak, Cristina Fernandez Izaguirrek, Martin Lasa Rekaldek, Iñaki Arregi Garitanok, M^a Idoia Olano Goikoetxeak, M^a Carmen Olano Zubeldiak, M^a José Aizpurua Larrartek, Alexander Lasa Rekaldek, Josune Artola Arregik, Jule Martinez Arnaizek eta Jose Igancio Lasa Arsuagak, guztiak Udal honetako funtzionariak eta guztiek zitazio eta jakinerazpenetarako ELA Sindikatu Konfederalaren Bulegoan, 275 posta-kutxatila, 20.400 Tolosan helbideratuak, eskaera bana aurkeztu dute, 1657, 1647, 1648, 1649, 1650, 1651, 1652, 1653, 1654, 1655, 1656 eta 1613 sarrera zenbakiak dituztenak hurrenez hurren.

Honen bidez eskatzen dutena, soldata-masaren %1eko lansaria da (629,35.-€), "abenduaren 28ko 42/2006 Legean, Estatuaren 2007ko Aurrekontu Orokorrei buruzkoan, eta zehazkiago esanda, Legearen 21. artikulua 4, 6, 7 eta 9 zenbakietan" hala diola gaineratuz.

Kontuan izan beharrekoa da baita ere, aipatutako lege berean:

- 21. artikulua bigarren atalak ezartzen duenez, sektore publikoan aritzen den pertsonalaren lansariak, ezin izango duela 2007 urtean, %2aren baino handitze handiagoa jasan 2006 urtearekiko.
- 21. artikulua zortzigarren atalak ezartzen duenez, artikulua honek adierazitako ordainsarien igoera baino igoera handiagoak suposatzen duten hitzarmen eta itunek, dagozkien aldaketak jasan beharko dituzte, aurkakoak diren klausulak ezarri ezinak bihurtuko direlarik.

Bestalde ahaztu ezinezkoa da lehenik, indarrean dagoen euskadiko toki erakundeetako lan harremanetarako protokolo markoak (UDALHITZ), 92.9. artikuluan ordainsarien igoerak ezartzerakoan, 2007rako %4ko igoera erabakitzen duela (baldintzapean); bigarrenik, 2006ko irailaren 27ko udal bilkurak udaleko funtzionarien eta langileen kondizioak arautzen dituen akordioa onartu zuela; eta hirugarrenik, bi mila eta zazpiko urtarrilaren hogeita hiruko 4/07 dekretuaren bidez, sinatutako akordio horren arabera 2007. urteari dagokion ordainsarien igoera kontzeptu guztiengatik %4koa izan dela.

Aipatutako guztia kontuan izanik, %4ko igoera horrek abenduaren 28ko 42/2006 Legeak, Estatuaren 2007ko Aurrekontu Orokorrei buruzkoak adierazten duen gehieneko %2ko igoera, aisa hobetu eta gainditzen du batetik, eta bestetik,

UDALHITZ delako protokolo markoa sinatzerakoan onartutako konpromezuak bizirik eta indarrean jarraitzen duela kontsideratzen da.

Ikusita idazkari-kontuhartzailearen txostena, Udalbatzak aho batez erabaki du:

Lehena.- Egindako eskaera ez onartzea eta Udalhitz sinatzerakoan hartutako konpromezuak berrestea.

Bigarrena.- Eskaera egin duen orori erabakia jakinaraztea, horretarako adierazitako helbidean.

Erabaki hau erabatekoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

HAMALAU GARREN GAIA GALDERAK ETA ESKAERAK.

14.1.- M. Jesus Otaño Zumeta zinegotziak hitza hartu eta galdera batzuk egin ditu:

- ❑ Trinketeko atea: Aipatu diote trinketeko atarekin zenbait arazo daudela, ez omen dabilela behar bezala, burdinazkoa da eta bere pisuak tokitik ateratzen du.

Alkate andereak adierazten du jakinean dagoela eta hori konpon dezakeen enpresa batekin kontaktuan jarria dagoela.

- ❑ Bestalde, trinketeko tabernan zerbait egitea komeni da itxitura edo antzeko zer edo zer. Arazoa da taberna beti zabalik gelditzen dela trinketera sartzen den edozeinen esku eta lapurretak izaten direla bertan. Barran bertan pertsiana edo halako zerbait jartzea komenigarria izan daiteke eta soluzio erraza da.

Alkate andereak adierazten du udal arkitektu teknikoa jakinaren gainean jarri duela eta gaia aztertuko dutela.

- ❑ Eskulanetako gelarako zenbait oinarrizko material eskatzen da: apalak, "Mistol" tresnak garbitzeko, eta abar.

Alkate andereak adierazten du oinarrizko material batzuk jarriko direla, eskulanetako ohizko ikastaro bat era egokian aurrera eraman ahal izateko.

14.2.- Alkate andereak hitza hartu eta 2008 urterako ordenantza fiskalen aldaketa egin beharko dela adierazten du. Guztiak ados agertzen dira beharrezkoa dela zenbait gaietan baina beste batzuetan, adibidez ibilgailuei dagokion zergan, duela bi urte oso igoera handia egin zioten eta hori geldirik utzi beharko litzateke, aldiz, beste zergaren bat igo daiteke, zaharkitua gelditu den beste tasaren bat eta honela orekatu.

Alkate andereak proposatzen du berak gaia sakonean aztertuko duela eta hurrengo astean guztiei gaia azaldu eta datuak eman ondoren, egokiena dirudien erabakia hartuko dutela denen artean.

Udalbatzak aho batez erabaki du gai hau jorrazteko nahikoa datu daudenean, ezohiko osoko bilkura batetarako deialdia egin eta gaia aztertzea.

Erabaki hau izapidezkoa besterik ez da eta ez dago honen aurka inongo helegitea jartzetik.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, 21:40etan eman da amaitutzat bilera. Han esandako guztia aktan jaso eta idazkari nauzuen honek EGIAZTATZEN dut.